

BOSGARREN GARAIA: ARTISTA ZARA?

1. saioa – Gaian sar zaitez

Helburuak

OULIPO, idatzizko jokoen bidez testu poetikoen sortzea

Ibilbidea:

Ikastalde osoa	OULIPO, idatzizko jokoen ezagutzeko, bigarren eta hirugarren orrialdeak irakurriko dira. (liburu honen ... or.). Plantan emateko erritmoa hauta daiteke: - Ikasle guziek ber idatzizko jokoa baliatuz idatz dezakete, - Taldeak antolatuz, talde bakoitzak idatzizko joko batean oinarrituz testuak sor litzake eta besteei irakurri, - ... Beste OULIPO idatzizko joko zenbait aurkez ditzake irakasleak. Testu poetiko guztiak liburuxka batean, afixetan, etab. bil daitezke.
Ikastalde osoa	<i>Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.</i>

2. saioa

Albura irakurtzen hasi aitzin, ikasleekin hiztegia lan dezakezue (12. or.).

Helburuak

Dokumentu anitzetan gertakari bati buruzko argibideen biltzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Bakarka	Ikasleek 4. or. eta 5. or. irakurriko dituzte isiltasunean
Binaka	Ikasleek HAG (Hautu anitzeko galdeketa) osatuko dute <i>Fitxa: "1. Gernikako bonbardaketa HAG"</i>
Ikastalde osoa	Galdeketa talde osoan zuzenduko da, Orrialde bikoitza proiektatua izanen da edo handiz afixatua. Ikasleek erantzuna justifikatu beharko dute testuetan oinarrituz. <u>Oharra</u> Gai honi buruz lekukotasun gehigarri bat irakur daiteke. <i>Fitxa: "2. Gernikako bonbardaketa Lurdesen lekukotasuna."</i>

Ikastalde osoa	<i>Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.</i>
-------------------	---

3. saioa

Helburuak

Gertakari baten eta artisten lanaren arteko loturen aztertzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Ikastalde osoa	Irakasleak kantuak entzunaraziko dizkie ikasleei <i>Gernikan</i> https://www.youtube.com/watch?v=vXhqirGs7ek
Bakarka	1937ko apirilaren 26a eguna ilun, triste eta negargarria izan dela erakusten duten seinaleak gainmarkatuko dituzte ikasleek. <i>Fitxa: "3. Kantuen azterketa"</i>
Ikastalde  osoa	Ikastalde osoarekin irakur daitezke kantuen hitzak, kantari bakoitzak Gernikako tragedia nola adierazten duen azpimarratzeko.
Binaka	Picassoren obra aztertuko dute ikasleek, metodologia azaldu eta: a) Zer ikusten duzu? b) Zer ulertzen duzu? <i>Fitxa: "4. Picassoren obraren azterketa"</i>
Ikastalde  osoa	Obra proiektatua izanen da, ikasleek deskribatuko dute eta ulertzen dutena adieraziko.
Bakarka	Bukatzeko, ikasle bakoitzak idatziko du zer dion obra honi buruz, eta Zumetarenari buruz.
Ikastalde osoa	<i>Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.</i>

4. saioa

Helburuak

Artista baten obra plastikoetan oinarrituz gaurkotasunari buruzko mezu baten pasaraztea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Ikastalde osoa	<i>Irakaslea: "Urepeleko artista baten lana ezagutuko duzue. Zuen eskuliburuko orrialde bikoitzean ageri diren afixak marraztu zituen. DOM Campistron elkarrizketatu dute proiektu horri buruz. Entzun ezazue. Ondotik, binaka ulertu duzuen elkarrizketaz azalduko diozue eta bukatzeko kartak zehazki deskribatuko."</i> 2/3 ikaslek agindua beren gisan erranen dute. Irakasleak ikasleei elkarrizketa entzunaraziko die, beharrez bizpahiru aldiz.

Binaka	Ikasleek DOMen proiektua elkarri azalduko diote eta ondotik kartak zehazki deskribatuko.
Ikastalde osoa 	Deskribapenaren barnatzeko, irakasleak kartak bederazka proiektatzen ahalko ditu, DOMek azaldu elementuak argituz. Ondotik idazlana aurkeztuko diezue. Lana bakarrik hasi aitzin, ikasleek defendatzeko kausa ideia batzuk arbelean zerrenda litzake irakasleak.
Bakarka	Ikasle bakoitzak kartoizko leiho bat baliatuz karta baten zatia hautatuko du, eta proposatu zaizkion hitzak baliatuz testu bat idatziko. <u>Oharra</u> Haurren lan guziak bil daitezke eta erakusketa antola beste ikasleendako, burasoendako...
Ikastalde osoa	<i>Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.</i>

5. saioa

Helburuak

Elkarrizketa baten irakurtzea eta artista baten sortze prozesuaren ulertzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Ikastalde osoa	Irakasleak ikasleei DOMen elkarrizketa entzunaraziko diezue. DOMek aipatzen duen marrazteko teknika plantan ezar liteke.
Binaka	
Ikastalde osoa 	
Bakarka	
Ikastalde osoa	<i>Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.</i>

6. saioa - Aingeru galduaren bila - 2.-7. or.

Albuma irakurtzen hasi aitzin, ikasleekin hiztegia lan dezakezue (12. or.).

Helburuak

Ipuinaren hastapeneko egoeraren ulertzea: gertakariak eta pertsonaien sentimenduak

Bakarka	Ikasleek 2.-7. orrialdeak isiltasunean irakurriko dituzte.
Binaka	Ikasleek elkarri kontatuko diote zer ulertu duten.
Bakarka	Ikasleek pertsonaien sentimenduak idatziko dituzte (1.galdera). <i>Fitxa: "5. Hastapeneko egoera"</i> * Lehenik, irakasleak ozen irakur diezaieke ikasle batzuei.
Taldeka	Ikasleek bunbuiloetan idatzi dutena konparatuko dute, kanoretsua denetz erranen eta osatuko. Irakasleak haurren lana bilduko du zuzentzeko.
Ikastalde osoa	<i>Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.</i>

7. saioa - Aingeru galduaren bila - 8.-11. or.

Helburuak

Ipuineko elkarrizketaren antzeztea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Ikastalde osoa	Irakasleak 8. orrialdeko irudia proiektatuko du eta testua irakurriko die ikasleei.
Binaka	Irakurketaren ondotik, 6. fitxaren lehen partea beteko dute ikasleek. (2.galdera) <i>Fitxa: "6. Eloiren abenturaren abiatzea"</i>
Bakarkako edo binaka	Ikastaldearen arabera, albumean oinarrituz elkarrizketa osatuko dute: - Aditzak den bezala kopiatuz. - Gizon gaztearen ihardespak molde neutroan idatziz.
Binaka	Irakurketa antzeztua (Gida honen ... or) Ikasleak trebatuko dira gizon gaztearen eta Eloiren arteko elkarrizketaren antzezten. <u>Oharra</u> * Beharrez irakurketa estereotipoan jarduera antolatuko da, irakurketa antzeztua plantan eman aitzin.
Ikastalde osoa	Erritual gisa, astean zehar ikasle bikoteek elkarrizketa ozenki irakur dezakete aldizka.
Bakarka	"Elkarrizketaren ondotik nola senti liteke Eloi?" bakoitzak idatziko du.
Ikastalde osoa	Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.

8. saioa - Aingeru galduaren bila - 12.-35. or.

Helburuak

Albumaren testuinguruaren, hots, artearen historiako elementu zenbaiten ezagutzea
Hastapenetik ipuinaren kontatzea.

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Ikastalde  osoa	Irakasleak diaporama proiektatuko du, margolanaren aurkezteko.
Bakarka	Liburuan miatuz, ikasleek fitxa osatuko dute. (8.galdera) <i>Fitxa: "7. Margolanak ezagutu"</i>
Binaka	Ikasleek zuzenduko dute.
Bakarka	Ikasleek albuma irakurriko dute 35. orrialderaino.
Binaka	Ondotik 3. galderari ihardetsiko diote ikasleek. Beharrez, lehen aldian irudiak eta testua erabil litzakete ipuina elkarri kontatzeko. Ondotik euskarririk gabe kontatuko dute. * Irakasleak talde batekin aritu daiteke.
Ikastalde osoa	<i>Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.</i>

9. saioa – Aingeru galduaren bila 36.-51.or.

Helburuak

Lotura kausalen egitea
Pertsonaien sentimenduak gogoetatzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Bakarka	Ikasleek ipuina isiltasunean irakurriko dute.
Ikastalde osoa 	35. orrialderaino irakurtzean, 7. fitxan den taula proiektatuko du irakasleak eta ikastalde osoarekin osatuko. (4. galdera) <i>Fitxa: "8 – Opariak"</i>
Bakarka	Ikasleek ipuina irakurriko dute 51. orrialderaino, isiltasunean.
Ikastalde osoa	Taula osa dezakezue.
Bakarka	Ikasleek bunbuiloetan idatziko dute Eloik pentsatzen eta sentitzen duena. (5. galdera) <i>Fitxa: "9 – Airatzen urdinean"</i> * Irakaslea talde batekin egon liteke.
Taldeka	Ikasleek konparatuko dute bunbuiloetan idatzi dutena, kanoretsua denetz erranen eta osatuko. Irakasleak haurren lana bilduko du zuzentzeko.
Bakarka	

Ikastalde osoa	<i>Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.</i>
----------------	---

10. saioa – Aingeru galduaren bila 52.-57. or.

Helburuak

Ipuin osoa ahoz kontatzea pertsonaia nagusiaren ikuspuntutik
Ipuinaren bukaerako egoeraren ulertzea: gertakariak eta pertsonaien sentimenduak
Idazlearen xedeari buruz hipotesien egitea, ipuinaren interpretatzea

Aitzineko saioan ikasiaz oroitzea ISILTASUNEAN	
Bakarka	Ikasleek ipuina isiltasunean irakurriko dute.
Ikastalde osoa	5., 6. & 7. galderak Binaka ahoz elkarri kontatzea diezaiekete. Ondotik, urdinean airatzen direlarik bakarka idatz lezakete, Bukatzeko, idazlearen xedeari buruz eztabaida eraman daiteke ikastalde osoan. <i>Eloiren potretan izan den aldaketa esplikatzen entseatuko dira: margolanek Eloirengan izan duten eragina azpimarratuko da, eta Eloik obrei begira duen ikuspegiaren aldaketa. Hastapenean interes guti zuten Eloik arte obrei, eta bukaeran harreman tinkoa garatu du haiekin, partekatu duten abenturan Eloi biziki inplikatu delarik.</i> <i>Eloiren jokamoldearen aldaketa (kurios, kuraios, dinamikoa, arranguratua, harro...)</i> Eloik zergatik uste du abentura hori egiazki bizi izan duela? Zergatik errealitate bat balitz bezala deskribatzen du? <i>"Autoreak zer ulertarazi nahi du arteaz, eta arteak ikusleengan duen eraginaz? Eloiren kasuan egiazki gertatzen den bezala, museoetako margolanetako pertsonaiak «bizidun bilaka» daitezke (irudizko adieran) ikuslearen bizipenean sartzen baitira, eta haren baitan eta haren irudimenean eragiten baitute. Ikuslea margolanaren giroan murgiltzen da eta emozioak libre uzten.</i>
Ikastalde osoa	<i>Saioaren bilana: "Zer ikasi duzue?" Ikasleek ikasi dutena beren gisan erranen dute. Irakasleak saioaren helburuekin bat heldu dela segurtatuko du.</i>

11. saioa – Aingeru galduaren bila

Helburuak

Euskal arte obra batzuetan haur baten bidaia kontatzen duen ipuin bat idaztea

Irakasleak Euskal Herriko artista batzuen arte obrak hauta ditzake eta ikasleek asma dezakete haur batek obra horietan egin dezakeen bidaia.

Edo ikasle bakoitzak Euskal Herriko artista baten obra hauta dezake eta ikastaldeari aurkez.

Ondotik, ikasleek aurkeztuak izan diren obra batzuk hautatzen ahalko dituzte eta obra horietan bidaia asmatzen.

Eta ...

